MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

23

gai

MONOGRAFIKOAK

JUNIO 2003 EKAINA

# EGUNKARIAREN ITXIERA

## EUSKALTZALEEN ETA EUSKALGINTZAREN AURKAKO OPERAZIOA



non zer

gai

EKAINA **2003** JUNIO Nº 23 Zenbakia

MONOGRAFIKOAK

**0. AURKEZPENA-PRESENTACIÓN**

Fernando Iraeta 3

**1. ELKARRIZKETAK 4**

«Handik ateratzeko eskatu nuen forentseari, bestela nire burua txikituko nuela»
*Martxelo Otamendi* 4

«Jendeak ulertu du, zorionez, erantzun bateratu iraunkor bat eman behar dela»
*Joan Mari Torrealdai* 10

«Siempre hay motivos para creer en la humanidad»
*Txema Auzmendi* 14

«Egunkariaren auzia test bat da Ibarretxeren planarentzat»
*Jose Elorrieta* 18

«Itxiera erronka bat da euskal eta espainiar kazetarientzat»
*Aidan White* 20

**2. SINDIKATUEN ERANTZUNA 22**

Ekimen sindikalaren manifestua 22

Egunkaria Aurrera
*ELA Astekaria* 23

Haserrea proiektu bihur dezagun
*German Kortabarria* 25

**3. ETORKIZUNARI BEGIRA 26**

Martxelo Otamendi gurean:
Zabaltasunaz eta kioskoaren txikiaz 26

Señor ministro, yo creo a Otamendi
*German Kortabarria* 27

«Proiektu berriaren alde bideratu behar da itxieraren aurka erakutsitako indarra»
*Joan Mari Larrarte* 28

**4. IRITZI ARTIKULUAK 30**

Bazterrean goxo?
*Bernardo Atxaga* 30

Harpidetza orria 31

La inconsistencia de tres autos
*Ramón Zallo* 32

A quien corresonda
*Joan Mari Irigoien* 35

ETA y el impuesto de valor añadido
*Pako Aristi* 36

**BISITAN 38**

EKT taldearen web orria 38

MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Barrainkua 13, 6.
48009 BILBO
☎ 94-4037799
Faxa: 94-4037766
*fundazioa@elasind.org*

# Aurkezpena

**Fernando Iraeta**
*Manu Robles-Arangiz Institutuko zuzendaria*

Aurtengo otsailaren 20ko gau luzean, guardia zibilak Del Olmo epailearen aginduz, Euskaldunon Egunkaria itxi zuen. Jakin eta Argia aldizkarien egoitzak miatu zituen, baita Ikastolen Federazioarena eta zenbait etxe ere. Atxilotuak izan ziren hamar lagunek tratu txarrak jasan zituzten -torturak ere bai batzuek- eta horietarik hiru espetxeraturik daude oraindik.

151 langile lanbiderik gabe gelditu ziren, eta milaka herritar euskal hizkuntz komunitatearen premiak eta egoera aintzat hartzen zituen kazetarik eta komunikazio tresnarik gabe. Euskalgintzaren eta euskaltzaleen aurkako operazio zuzena izan zen.

Eraso horrek erantzun zabala izan zuen bai herritarren, eta baita ere langilegoaren aldetik, kaleetan eta lantegietan. Esaterako, Donostiako manifestaldi erraldoia, sindikatuen posizionamendua, alderdiena, erakundeena, zenbait eta zenbait gizarte eragile eta taldeen adierazpenak; Catalunya, Madrid, Galiza, Brusela, eta hainbat tokitik jasotako babesa, martxoaren 13ko lanuztea, La Casillako jaialdia, ... Euskal gizarteak erasoei aurre egiteko ahalmena erakutsi zuen. Eta gu ere erasotuak sentitu ginen bezanbait euskaltzale bezala.

Otsailaren 21etik aurrera, Egunero argitaratu da (bejondeizuela!), eta aldi berean eta ordutik hona, Egunkariko langileak proiektu berri bat prestatzen aritu dira; eta ekainean, hil honetan, berehala, "Berria" eskuartean izango dugu.

Monografiko honek azken hiru hilabete hauetan idatzi denaren sorta eta oihartzuna izan nahi du eta aldi berean, gertatutakoaren salaketa, kaltetuenganako elkartasun mezua, eta egunkari berriari ongi-etorria.

Guk ere, euskarazko prentsak hizkuntza komunitatean funtzio garrantzitsua betetzen duela pentsatzen dugu. Euskal Herri mailako hedadura eta lotura mantentzen duen elementu apurretako bat eta euskaraz bizitzea posible egiten duen ezinbesteko elementua dela.

Langileen eta kazetarien militantziaz gain, enpresa berriak lan-harreman normalizatuak eta homologatuak izatea nahiko genuke. Eta kazeta berriak eskubide guztiak, herritar guztientzat, Euskal Herri osoan leloarekin bat eginez, bide zibil, demokratiko eta bakezkoen aldeko aukera eginez prozesu soberanistari laguntzea.

Funtsean orain arteko langile-kazetari talde berak egingo duela kontutan izanik, gauzak hobetzen saiatuko direla eta erraza ez izan arren independentzia gordetzen, eta plurala izaten ahaleginduko direla ez dugu dudarik. Helburua Berriak lehengoa hobetzea izango litzake.

Eta helburu hori lortzen laguntzeko prest gaudela adierazi nahi dugu. Guk ere bai euskarari, bai adierazpen askatasunari, eta bai herriari aldarrikatzen dugulako, indar eta asmo berdinarekin, bai egunkari berriari diogu. Animo!

> **Nuestra apuesta y colaboración con el nuevo periódico en euskera son claras. Desearíamos que la fuerza y capacidad demostrada por la sociedad vasca para hacer frente a la agresión que el cierre de Egunkaria ha supuesto, se encauzara y tomara la iniciativa no solamente en el apoyo el nuevo proyecto periodístico sino también y sobre todo en la habilitación de vías civiles, democráticas y pacíficas, hacia una Euskal Herria soberana, justa y solidaria**
>
> ***F.I.***

# Elkarrizketak

## Martxelo Otamendi:

# «Handik ateratzeko eskatu nuen forentseari, bestela nire burua txikituko nuela»

**Guardia Zibilaren esku inkomunikaturik igaro zituen bost egun luzeetan etengabeko irain, bejazio, tortura eta tratu txar pairatu zituen Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendariak...**

*Egunero, 2003ko otsailaren 27a*

**G:** *Forenseari esan zenion torturatu egin zintuztela.*

**MO:** Ostegunean esan nion ez zidatela lorik egiten uzten, zutik edukitzen nindutela. Baina ostiraleko partean esan nion, ostegunari buruz, oso gogorra izan zela, mila ariketa eginarazi zizkidatela, mila mehatxu, mila postura desberdinetan, zutik gau osoa, tarteka uzten didatela esertzen baina gero ordutan zutik. Konortea galduko dut, pentsatu dut honek itxura txarra daukala, eta esan nion epaile jaunari esateko epaileari eraman nazala auzitegi nazionaleko ziegetara inkomunikazio garaia pasa bitartean, bestela nere buruari emango niola ziegako burdinezko zutabeari eta eraman beharko nindutela ospitalera. Ostiraleko narrazio horretatik begiak estalita -ziegatik kanpo beti begiak estalita edukitzen nindutenatera eta 30 minutura etorri zitzaiz-



kidan guardia zibil batzuk, atera ninduten arrastaka nire ziegatik eta handik metro batzuetara etzan ninduten eta esan zidaten: forenseari berriro esaten badiozu zer egiten ari garen, tiro bat joko dizugu. Esan nuen: ez da posible orduerdian hau dena jakitea guardia zibilek.

**G:** *Forensearekin zinenean noski guardia zibilik ez zegoen.*

**MO:** Bakarrik bai, baina esan nion gero epaileari, jakin zezala guardi zibilek bitartekoak zituztela atxilotuak forensearekin hitz egiten dugunaren berri izateko. Forensearen figurak ez duela balio adierazi nahi izan nion, eta berme demokratikorik ez zegoela atxilotuarentzat.

**G:** *Mehatxatu ere egin zaituzte, ezta?*

**MO:** Torturak salatzen baditut atzetik izango ditudala esan didate argi eta garbi. Esan zidaten ihauteriak direla eta ihauterietan mozorrotuta nere atzetik ibiltzea erraza izango, eta ikusiko garela ihauterietan. Bizitza ezinezko egingo didatela eta etorriko direla etxera nere bila, torturak salatzen baditut.

**G:** *Zer egin dizute bost egunotan?*

**MO:** Ariketa fisiko etengabeak, lehertu arte, lurrera erotzeraino eta arnasa galtzeraino; flexioak, flexioak... Mehatxuak, irainak; hasieratik esan zidaten: hau kate bat da, trenbide bat. Gelditu aurreneko geltokian nahi baduzu, edo egin bide osoa bestela, baina hemen denak kantatzen dute. Zuk aukeratu non geratu. Aurreneko trenean kantatzen baduzu gutxiago sufrituko duzu, eta inkomunikazioa bukatu bitartean izango duzu ohea eta gela. Ni ez ninduten jo eta jo, Joan Marirekin egin zuten bezala. Gradualidade bat zuen denak: aurrena zutik egotera behartu, eta ondoren, hankak zutik bezala baina gerritik behera makurtuta. Hiru ordu eduki ninduten behin horrela.

**G:** *Interrogatzen ari ziren bitartean?*

**MO:** Ez, ziegan. Eta ziegan ondoan gure arteko beste atxilotu bat zegoen. Eta hura ondo tratatzen ari ziren nere aldean. Eszenifikatzen ari ziren nire aurrean tratu desberdintasuna, elkar gorrotatzera heltzeko, zure laguna gorrotatzeko.

**G:** *Inkomunikatuta eta ziegakide lagun bat izan zenuen?*

**MO:** Baina ezin izan diogu elkarri begiratu, ezta elkarrekin hitz egin ere. Egia da nik ez diodala hitz egin nire ziegakideari bost egun hauetan, beldurragatik. Ez genion ezta elkarri begiratu ere egiten.

**G:** *Guardia zibilak zuekin zeudelako?*

**MO:** Ez zeuden bertan, baina atean gu ikusteko moduko irekidura bat daukate. Hain zauzkate beldurtuta, zure lagunari begira harrapatuz gero egin dizutenaren beldurrez, uko egiten diozula zure lagunari begiratzeari edo hitz egiteari. Hiru egun oso egin ditugu elkarrekin, eta hitzik ez. Igandean eta astelehenean, berriz, bakarrik eduki ninduten.

**G:** *Poltsarena egin zizuten.*

**MO:** Galdeketa gradualizatu egiten dute. Gradualizazio horren barruan, adierazi nahi dizute egunetik egunera gogorragoa dela, eta eszenifikatu egiten da egunez egun. Beste guardia zibil talde batek egin zidan poltsarena. Hori larunbatean zen. Bi aldiz egin zidaten. Pentsatuta neukan nere ingenuitatean poltsarekin minutu erdi irauten zenuela arnasa galdu arte. Ez duzu irauten hiru segundu! Eta bazo-az...eta esaten duzu: "Bai, bai, kontatuko dut!". Gero, zerbait esaten hasi, eta "ez naiz gogoratzen" edo horrelako zerbait, eta beraiek: "Gogora zaitez putasemea. Lurrera! Flexioak!", erantzuten zidaten.

**G:** *Zeri buruzko informazioa atera nahi zizuten?*

**MO:** Bi puntu zituzten nirekin: Egunkariaren sorreran eta nire izendapenean ETAren esku hartzea. Demostratu nahi izatea ETAren izenean eskaini zitzaidala zuzendaritza. Gero, Martin Ugalde Parkeaz, Joxemi Zumalabez, Joan Mari Torrealdaiz, gero Parkeaz" Nahastu egiten zaituzte, egun askotan galdera berberak, gezurrak harrapatzeko teknika, gezur asko memorizatzea zaila delako. Eta bestetik, Zutabe aldizkariak, ETAren agiriak eta ETAri elkarrizketak: loturak nola egiten dira. Behin eta berriro azaldu nien ez dugula zerikusirik ETArekin, ni Iñaki Uriak izendatu ninduela, Uria ez dela ETAkoa, eta gaine-

**«Nahastu egiten zaituzte, egun askotan galdera berberak, gezurrak harrapatzeko teknika, gezur asko memorizatzea zaila delako»**



**«Ariketa fisiko etengabeak, lehertu arte, lurrera erotzeraino eta arnasa galtzeraino; flexioak, flexioak... Mehatxuak, irainak; hasieratik esan zidaten: hau kate bat da, trenbide bat»**

**«Martin Ugalde miaketan bihotzekoak jota hil zela esan zidaten askotan. Hilko nindutela ere askotan esan zidaten»**

ra, esan nien ez nuela izendapena onartuko ETAk zerikusirik izan zuela jakin izanez gero. Epaileari mila aldiz esan nion hori, 45 minutuz hitz egin nionean. Baina guardia zibilei hori esaten hasten nintzenean, "putasemea! putasemea!" esanez isilarazten ninduten. Irain asko, eta gezurrak: Martin Ugalde miaketan bihotzekoak jota hil zela esan zidaten askotan. Hilko nindutela ere askotan esan zidaten. Ez deklaratzeko eskubidea nuela esaten nienean, "leku honek ez dauka zerikusirik demokratziarekin ezta Konstituzio putarekin ere" esanez erantzuten zidaten, "hemen deklaratu egiten da, eta kito!".

**G:** *Besteak zer deklaratzen ari ziren esaten zizuten?*

**MO:** Tarteka bai. Datuak ez, baina bai "besteek salatu zaituzte", "honen deklarazioak hondoratu egin zaitu", "ETArekin modu organikoan bat eginda zaudela badakigu, galdua zaude, berretsi ezazu eta lotara zoaz hurrengo hiru egunetarako", "zu zara bakarra egoera honetan, espabilatu eta ez zaitez tontoa izan"". Ezetz esaten nien, sekula ez dudala ETAren irizpiderik jaso, ez kritikarik ez goraipamenik. "Lurrera putasemea! Flexioak!" erantzuten zidaten.

**G:** *Zu euren eskuetan izateko gogoa zutela adierazi zizuten, ezta?*

**MO:** Bai, tertuliatan eta parte hartzeagatik ezaguna naizelako eta, asko sartu dira horrekin.

**G:** *Informazio bazuten zuri buruz.*

**MO:** Bai. Tertuliatan-eta esan izan nituenak aipatzen zidaten. Eta gehiago: Lasa eta Zabalaren epaiketan Madrilen izan nintzenean beraiek ere han zirela eman zidaten aditzera: "Zergatik egin zenuen barre epaiketan halako momentuan?", "epaiaren irakurketan ere barrez izan zinen!". Bereziki ni harrapatzeko gogoa bazutela esan zidaten.

**G:** *Egunkariari buruz eta euskalgintzari buruz informazio handia daukatela sumatu duzu?*

**MO:** Bai, hala ematen du. Azaletik behintzat, oso ondo. Dena ez dizute esaten, eta ez dakizu noraino, baina euskarazko produkzioaren eta euskalgintzaren panorama orokorraren oso ikuspegi sendoa daukatela nabarmena da.

**G:** *Kanpoan gertatukoari buruz aipamenik, edo gezurrik?*

**MO:** Ezer ez. Bakarrik esaten zidaten, "zu lasai, kantatu kantatu beharrekoa, esan torturatu zaituztela, eta gero gudari bezala egingo dizute omenaldia". Eta gero, "zu asko irauten ari zara, laster eroriko zara", eta nik: "Baina ez dakit zer eskatzen didazuen! Ez daukat zuek nahi duzuen daturik. Ez dut inoiz ETArekin bilerarik izan", eta beraiek, honelakoetan: "Lurrera! Flexioak!".

**G:** *Benetan sinesten dute, besteak beste, Txema Auzmendi eta Joan Mari Torrealdai ETAkoak direla?*

**MO:** Kapazak dira galdetzeko ea Torrealdaik idazten dituen ETAren agiriak. Ezetz. "Nork orduan? Uriak?". Ezetz. "Orduan zuk, nork diktatzen dizkizu?". Eta horrela estutuz, benetan nahi duten galderara heltzen dira: "Kanpoan idazten badira, nola heltzen dira zuengana?". Badakite Uriak ez dituela idazten, baina nork ekartzen dituen jakin nahi dutenez, aurretik leher eginda uzten naute, galdera horri erantzutera behartuta sentitzeko.

**G:** *Guardia zibil talde desberdinek torturatu zaituzte, ezta?*

**MO:** Nirekin bi talde ibili dira. 30 urte inguruko jende gaztea, egundoko gorrotoa dutena, euskal kulturaren gaineko ezagutza orokorra baduena, Espainiaren kontzepzio zentralizatu inperial hori daukatena. Eta beraien joko faboritoa galdera honekin egiten zuten: "Nondik nora hedatzen da Espainia?", eta nik erantzun behar nuen "Irundik Algecirasetik, eta Finisterretik Cabo de Rosas-era", eta behin eta berriro errepikarazten zidaten.

**G:** *Euskaldunekin mespretxu etengabea, ezta?*

**MO:** Dena berdintzen dute eta Miren Azkarateri buruz ere epelak esan zizkidaten. "Puta zahar horrek laguntzak ematen dizkizute!". Egundokoak, Miren Azkarateri buruz.

**G:** *Kide atxilotuen oihurik-edo entzun zenituen?*

**MO:** Zarata handiak, kolpeak-eta. Eta noiz-behinka torturaturen baten oihu handiren bat entzuten zenean inguruan bost edo zortzi laguneko koro antzeko bat hasten zuten oihu hura estaltzeko. Nik oihurik eta ez nuen egin min fisikoa zuzenean ez zidatela-

**Bakarrik esaten zidaten, *"zu lasai, kantatu kantatu beharrekoa, esan torturatu zaituztela, eta gero gudari bezala egingo dizute omenaldia"***

ko egin. Niri, nekea eta poltsa, batik bat.

**G:** *Ikusi zenuen inoiz guardia zibiletako inor?*

**MO:** Begiak beti estalita izaten genituen, begi parean bildua zegoen galtzerdi antzeko batekin. Eta mugitzen bazen eta argi pixkat sartzen hasten bazen, ni neu abisatzera heldu nintzen, izua ematen baitzidan inor ikusi nuela ohartzen baziren zer egingo zidaten pentsatzeak.

**G:** *Bazenekien zein zeuden beste ziegatan?*

**MO:** Ez. Torrealdairen eta Uriaren oihuak entzutea iruditu zitzaidan, oihuka eta kexuka, eta Egunkariako oraingo zuzendaritzako beste jendea ere egongo zela pentsatzen nuen, eta garai batekoak ere egongo zirela.

**G:** *Torturaren profesionalak ikusi dituzu?*

**MO:** Bai. Ez dira edozein. Bakoitza bere paperarekin dago: bat Torquemada dela esanez, bestea aholkuak ematen.

**G:** *Kolpeak ez zizkizuten eman?*

**MO:** Kolpe batzuk barrabiletan, eta gehiago etor zitezkeenaren intsinuazioak, min emateko baino. Kolpe sendoak, ez. Eta Joan Marik (Torrealdai), bai.

**G:** *Biluztu?*

**MO:** Bai, erabat biluzik, batzuetan galtzontziloak belaunetan, tripaz gora eta tripaz behera jartzen ninduten. Sexu jarrerari buruzko irainak ere bai: "Jar zaitez horrela, badakigu eta horrela gustatzen zaizula"... Biluzik nengoela plastiko bildu bat ere ibili zidaten ipurdian.

**G:** *Inkomunikazioa luzatzeko beldurra izan zenuen*

**MO:** Nere kezka zen inkomunikazioa zortzi egunera luzatzea. Deklarazio poliziala egin nuenean, ofiziozko abokatua nere bizkarrean



zegoen -ez baitzidaten ikusten utzi-, bere izena esan zuenean "bai" esan zuelako nekien han zela. Ni joan nintzen galdeketa horretara buruz ikasita haiekin batera askotan errepikatutako galderak. Errepikarazten dizkizute galdera batzuk askotan, eta konturatzen zara hamar galdera maiz egin zizkidatela, eta nik erantzunak eman ahala, erantzun gustokoa zenean ontzat jotzen zutela. Ohartu ziren nik galderei erantzun diferenteak ematen nizkiela. Batzuk badira gauza bera esaten dutenak modu lineal eta garbian, eta ni itzulinguruka ibiltzen nintzela. Sartzen zara haien teknikan, bereganatzen zaituzte, eta asumitzen duzu. Gero epaileari esan nion deklarazio hori torturapean hartua zela, fiskala hasi zelako galderak egiten nire deklarazioan oinarrituz, eta nik epaileari esan nion ez nintzela prest erantzuteko Guardia Zibilak torturapean lortutako deklarazioaren inguruan.

**Nik epaileari esan nion ez nintzela prest erantzuteko Guardia Zibilak torturapean lortutako deklarazioaren inguruan**

**G:** *Esanarazi al zizuten egia ez den zerbait?*

**MO:** Ez, zeren gainera nola uste duzun badakitela erantzuna, ez zara ausartzen gezurra esatera. Izan ere, somatzen badute gezurra dela esaten ari zarena, kristorena etortzen zaizu. Orduan, askotan "ez dakit" esaten duzu" Pasa nituen orduak eta orduak ez nekiela esaten. Halako batean sinesten dizute. Niri dagokionez, hainbeste ukatu nien ETA-Egunkaria lotura, eta hainbeste aldiz esan nien ni ez ninduela ETAk izendatu baizik eta kontseilari ordezkariak. Horrekin aspertu ziren erabat, aprobetxatu zuten besterako: ETAren agiriak non egiten ziren, zergatik erretzen diren agiriak... Horrez gain, ETAri egindako elkarrizketei buruz aritu zitzaizkidan



gogor. Seguraski beraiek ez dute aukera handirik izango ETAko zuzendaritzarekin izan den jendearekin egoteko, eta horregatik obsesionatuta zeuden. Beren aukera zen, eta interes handia erakutsi zuten horretan.

**G:** *Epailearen kezka ez zen hori ordea.*

**MO:** Ez. Nire atxiloketan bi arrazoi zeuden, bat sumarioarekin lotura duena, eta bestea ETAren inguruko lan profesionala, elkarrizketei dagokiena. Epaileak esan zuen sumario hori beste epaile baten eskuetan zela, eta bera hor ez zela sartuko.

**G:** *Lehen aipatu duzu zortzi egunetakoa. Beraiek aipatu zizuten inkomunikazioa eta atxiloketa luzatzeko aukera?*

**MO:** Bai, bai. Beraiek esan zuten hiru, bost eta zortzi egun zirela. Sinarazi zidaten paper bat jakinarazten zidana epaileak onartu zuela zortzi egun arteko inkomunikazioa. Ni momentu batean konbentzituta nengoen zortzi egun edukiko nindutela. Hori jakinarazi zidaten larunbatean, eta, beraz, pentsatu nuen igandea, astelehena eta hiru egun gehiago edukiko nindutela. Nik une horretan pentsatu nuen ez nuela jasango hiru egun gehiago han. Hor irekitzen dizuten aukera da zure buruaz beste egitea. Eskatu nien tiroa jotzeko, eta bukatzeko azkar.

**G:** *Zuk eskatu zenien hori?*

**MO:** Bai, behin baino gehiagotan. Forentseari esan nion kasu egiten ez bazidan burua txikituko nuela han zegoen zutabe baten aurka. Ez duzu hil nahi, baina barrutik ateratzen zaizun zerbait da esateko jasangarritasunaren mugara heldu zarela, ezin duzula gehiago.

**G:** *Nola izan zen epailearen aurreko deklarazioa?*

**MO:** Nik epaileari egin nion nire eta Egunkariaren defentsa. Garbi utzi nuen Egunkariak ez duela inolako loturarik ETArekin, ETAren esku hartzerik sekula ez dela izan Egunkarian, eta ETArekin egin den gauza bakarra dela hiru elkarrizketa nire partetik, lan profesionalak, eta epaileak sekula delitutzat joko ez lituzkeenak. Hori luze argudiatu nion.

**G:** *Akziodunena zen beste puntu bat.*

**MO:** Bai, ez zuten ulertzen nola 1.000 akziodun inguru izanda, soilik 30 inguru joaten diren urteko batzarrera. Eta nola akziodunek ez duten eskatzen Egunkariak dirua irabaztea. Epaileak horren inguruan galdetzen zidan, eta nik esaten nien euskal filosofia azalduko niela nahi bazuen. Orduan esan nien akziodunek dirua jartzen dutela bi baldintzaren truke: egunkaria aurrera ateratzea, eta ez ika-mikan ibiltzea elkartzen garenean. Orduan esan nien BBVAk milioi bat akziodun

baino gehiago dituela, eta milabostehun baino ez direla joaten batzarrera; ni, gonbidatu gisa izan naizela BBVren batzar batean eta ikusi egin dudala. Barçak 100.000 bazkide baditu, urteko batzarrera hiruzpalau mila joango direla. Esan nien euskal produktuak defizitarioak direla, dirulaguntzei esker bizi garela, azpiegitura enpresarial eta ekonomikoetan gabeziak daudela. Hori dena azaldu behar izan nien uler-tzeko nola akziodun gehienak ez diren joaten urteko batzarrera.

**Hauen jokaldia da dirua ETAk jarri duela, eta akziodunak goardasolak direla. Orduan nik esan nien egiazkoak direla, nominalak direla**

**G:** *Izan ere, beren tesia da gezurrezko akziodunak direla.*

**MO:** Hauen jokaldia da dirua ETAk jarri duela, eta akziodunak goardasolak direla. Orduan nik esan nien egiazkoak direla, nominalak direla. Ia ezagutzen nituen galdetzen zidan, eta nik batzuk baietz. 45 minutuz gauza horiek azaltzen eman nituen, bi tesi nagusirekin: ETAk ez ninduela izendatu, ETAk ez duela inolako eskuhartzerik Egunkarian, ETAko kiderik ez dela Egunkarian. Eta, bigarrena: ni izendatu ninduela zuzendari kontseilari ordezkariak, ez ETAk. Horretaz, nik zor bakarra dudala: nire irakurleekin, nire langileekin, nire iragarleekin. Esan nion ez dakidala ETAren zer paperetan agertzen den nire izena, baina hala bada, nik paper pasiboa dudala hor, nitaz ari direla hizketan nik jakin gabe.

**G:** *Alderdi politiko askoren paperetan agertuko zaren bezala, ezta?*

**MO:** Bai, hala esan nion: "seguru nago exekutibo askotan, alderdi askotan agertzen dela Egunkaria, eta gure izena, eta agian akta jasota dagoela, eta horrek ez duela esan nahi guk haiekin zerikusirik dugunik". Batzuek aipatuko dute Egunkaria baloratzeko gurekin egindako bilera bat, agian; eta, beste batzuek baloratzeko norbait dagoenetik oso tratamendu ona edo txarra ematen ari zaiola ez dakit zer gairi.

**G:** *Tortura salaketen aurrean epaileak zer?*

**MO:** Ez epaileak ez fiskalak ez zuten ezer galdetu, ez ñabardurarik eskatu. Esan nien ez dela posible informazioaren profesional bat horrela tratatzea, gizaki bat horrela tratatzea. Horren aurrean fiskalak esan zuen beraiek ongi tratatzen ari zitzaizkidala, eta, nik, baietz, ongi tratatzen ari zitzaizkidala, baina Guardia Zibilak ez. Eta gainera, esan nien epaileei: "Guardia zibilei nire eskubideen inguruan zerbait aipatzean izugarrizkoak bota dituzte bai zuei buruz, bai Auzitegi Nazionalari buruz, bai konstituzioari buruz, Eusko Jaurlaritzari buruz". Eta esan nuen: "Instituzio honekiko errespetuagatik ez ditut errepikatuko hemen hari buruz esan dituztenak".

**G:** *Kalera irten orduko esperoko zenuen egunkari berri bat martxan izatea, ezta?*

**MO:** Bai, ez nuen dudarik. Bi kontuk poztu naute bereziki: batetik, zuzendaria, kontseilari ordezkaria eta administrazio kontseiluko lehendakaria egon gabe gai izan zaretela aurrera ateratzeko eta egituratzeko egunkari berria; eta, bestetik, larunbateko manifestazio ikaragarria. Oso zabala, masiboa eta espontaneoa izan dena, jendea bihotzez joan den manifestazioa, asko eta asko negarrez. Orain aprobetxatu behar dugu olatu hau izugarrizko egunkari bat egiteko.

**G:** *Kartzelatik irten orduko hiru zeregin aipatu zenituen.*

**MO:** Bat, lanean jarri behar dugula kartzelan geratu diren urteotako lagun eta lankideak ateratzeko; bi, egunkaria iraunarazteko; eta, hirugarrena, baliatu behar dugula jende ezaguna torturatu dutela Euskal Herrian sortzeko torturaren aurkako hesi nazional-instituzional-sozial bat, tortura desagerraraziko duena. Nola gure salaketa sinesgarria izango zaion mundu guztiari, egin dezagun lana hori desagerrarazteko, ez baita posible egoera hau. Herri honetako kudeatzaileek lehen mailako arazo balitz bezala hartu behar dute, eta torturaren aurkako Nunca Mais bat eratu.

**G:** *Espainiako Gobernuak berak agindu du zuen aurkako salaketa jarriko duela torturak salatu izanagatik.*

**MO:** Ikusiko dugu elkar auzitegian, baina ni torturatu egin naute, eta ez dut demostratu demostratzeko aukerarik ez dudalako. Izango da nire adierazpenaren haienaren kontra, baina ez daukat inongo modurik erakusteko torturatu egin nautela.

**G:** *Pello Zubiriaren egoeraren berri izan duzue.*

**MO:** Beno, ziegatik oihuka entzun nuen behin baino gehiagotan. Gero, Auzitegi Nazionalean esan ziguten bere buruaz beste egiten saiatu zela.

**Bai, ez zuten ulertzen nola 1.000 akziodun inguru izanda, soilik 30 inguru joaten diren urteko batzarrera**

Joan Mari Torrealdai

Egunkariako administrazio kontseiluko lehendakaria eta Jakin-eko zuzendaria

# «Jendeak ulertu du, zorionez, **erantzun bateratu iraunkor bat** eman behar dela»



**Martxoaren 13an Soto del Real-en datatua dago Joan Mari Torrealdairen erantzunak jasotzen dituen gutuna, azkenean, postaz bidali beharrik gabe, eskura eman ahal izan diguna.**

**G:** *Atxiloketari buruz zer oroimen duzu?*

**JMT:** Oroimena? Oroimena ez, bizipena, guztiz bizirik nire baitan dirauen kalbarioa dut gogoan. Dena dut gogoan eta bihotzean, mina eta pena. Kontatuko dizut nola gertatu ziren gauzak.

Otsailaren 19-20ko gaueko ordu bata eta erdiak aldera Atila bezala sartu ziren etxean, atea kolpeka txikitu eta sekulako iskanbilarekin. Espantu batean esnarazi gintuzten laurok. Eskailera-burura iritsi ginenerako, dozena erdi guardia zibil etxe barruan zeuden, armekin apuntatzen. Ondoren sartu ziren gainerakoak. Ez dakit zenbat. Asko. Nahasketa

**Bukatzean, ozta-ozta agurtu ahal izan nituen emaztea eta haurrak. Haurren begiratuan islatzen zen izuak pertsegitu nau geroztik**

*Egunero, 2003ko martxoaren 18a*

behar zuela esan nien. Ezetz, eta epailearen paperak erakutsi zizkidaten.

Emaztea eta bi haurrak (12 eta 10 urtekoak) egongelan bildu zituzten, eta ni bereiz hartu ninduten, miaketarako. Baziren miaketa lanetan dozena bat gizon. Lau ordu luzetan, nire paper intimoak, nire dosierrak, ikerketak, nire paper guztiak begiratu zituzten, desordenatu, eta ehunka asko hartu eta eraman. Ez zuten deus errespetatu, emaztearen dokumentazioa ere ez.

Bukatzean, ozta-ozta agurtu ahal izan nituen emaztea eta haurrak. Haurren begiratuan islatzen zen izuak pertsegitu nau geroztik. Hura poema beltza, haur maiteen aurpegietan irakurri nuena! Barren gaiztoa behar du gizonak, eskuak lotuta eta gaizkile gisa etxetik gauez ateratzen duten aitari galdetzeko ea ez ote ninduen kezkatzen zer irudi izango zuten nitaz haurrek, oso hotz agurtu nituela. Kaleko jantzitako agente batek kolpatu ninduen horrela.

**G:** *Nolakoa izan zen Jakin-eko bulegoen miaketa?*

**JMT:** Aterik ez zuten puskatu han, giltza eman nielako. Hogei agentetik gora baziren han, geletan eta pasilloetan, jo batera eta jo bestera. Mugitu ezin zuen bakarra ni nintzen. A zer txikizioa egin zutena! Ordenagailu batzuk desmuntatu eta hustu zituzten, eta beste batzuk eraman. Ordenatuta zegoena desordenatu, armairu eta txoko guztiak miatu, milaka dokumentu eta paper eraman. Begirunerik gabe. Eta zehaztu edo deskribatu gabe. Kexatzen nintzen, baina alferrik.

Zazpi bat ordu han. Pelikula batean bezala ikusten ari nintzen nola hondatzen zuten nire bizitza eta lan profesionala, nire ikerketak, nire etorkizuna. Eta ni han, zutik ezin egonda. Egunkariari dagokion dokumentazioa ere eraman zuten. Hura bakarrik eramateko esan nien, baina ez: dena eraman zuten, nire-neurea, Jakin-ekoa, bilatu zuten guztia. Martin Ugalderen originalak ere bai.

Eta Jakin-etik Euskalgintza Elkarlanean Fundazioko bulegoetara pasatu ginen, pasatu ninduten, bertako atea behartu ondoren. Beraiek ere nekatuta zeuden ordurako, eta gutxiago miatu zuten, baina eraman asko, harrapatu zuten guztia. Behin eta berriz esan nien nik ez nuela zerikusirik EEFko bulegoarekin, baina alferrik. Autoak baimena ematen ziela, eta kito.

**G:** *Jakin-etik Madrilera, ezta?*

**JMT:** Segidan, Bin Laden baino arriskutsuagoa naizen hau, eskuak lotu, burua makurrarazi, autoan sartu eta Madrila. Horrelaxe, eskuak lotuta, begiak itxita, pixa egiteko aukerarik gabe (hiru aldiz eskatu nien arren) eta hitz eginaraziz. Ahituta nengoela eta isilik egon nahi nuela esan nien birritan. Ezetz.

Zergatik ninderamaten eta zergatik hala! galdetu nien, haurrei ere arma-jostailurik ez niela uzten eta. Garratz, zorrotz eta lehor erantzun zidan gaiztoena zirudienak: «Arma batzuek pistolek baino gehiago hiltzen dute». «Nitaz ari al zara?», esan nion, eta isildu egin nintzen.

**G:** *Inkomunikazio egunak etorri ziren gero. Ba al zenekien nor gehiago atxilotu zuten?*

**JMT:** Ez nekien non sartzen ninduten. Infernuan, hori bai. Kartzelan esan zidaten Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusian egonak ginela. Arratsalde erdian-edo sartu ninduten zulo beltz hartan. Jainkoak, munduaren sorreran, eguna eta gaua bereizi omen zituen. Guardia zibilek guri eguna eta gaua berdindu egin ziguten, dena zen gaua, iluna, beltza ziega hartan.

> **Zergatik ninderamaten eta zergatik hala! galdetu nien, haurrei ere arma-jostailurik ez niela uzten eta**

Ez nuen inoren eta ezeren berririk, ez nekien bakarrik detenitu ninduten ala gehiago ginen. Inguruko ziegetan bazegoen jendea, eta berriak ere sartu zituzten geroago, baina ez nekien nor. Halako batean Txema Auzmendiren ahotsa aditu nuen. Baginen bi. Hurrengo egunean, edo hirugarrenean, Iñaki Uriaren eta Martxelo Otamendiren ahotsak ezagutu nituen, galdeketan. Metro gutxitan 5 egun bizi izanik ere, beste inoren berririk ez nuen izan. Kartzelan enteratu nintzen. Izua zen nagusi han, isiltasun mortala.

**G:** *Nolako tratua eman zizuten?*

**JMT:** Ilunabar berean edo gauean eraman ninduten galdeketara. Burua estalita dardarka, izututa. Zutik, eskuak paretaren kontra, zangoak atzeraka eta zabal-zabal. Han hasi ziren galderak. Eta galderekin, kolpeak buruan, bizkarrean, jertsea eta alkandora erantzi ostean. Erregela edo antzeko batekin zango tartetik eta atzetik nire parteetan eman zidaten. Ez dakit lehenengo galdeketan edo hurrengo batean, sei bat aldiz egon bainintzen egoera berean. Plastiko bat ere jarri zidaten belarri parean, eta gero besoan zehar pasa, hotsa eraginez, eta zer zen ba ote nekien galdetuz. Eskuak indargetuta eta zutik gehiago ezin nuenean, esertzen utzi zidaten. Behin, lehen aldian, denbora gutxi. Kolaboratzen ez nuenez, pribilegioak amaitu zirela eta, aurrerantzean zutik egon behar izan nuen. Ziegara eraman, eta han ere zutik jarri, etza-

teko aukerarik gabe. Zein gogorra den burua estalita eta paretaren kontra egon beharra, kolpea noiz etorriko! Beldurrak zaude, gogortuta, dardarka. Are gehiago zure atzealdean petardoak leherrarazten dituztenean.

**Galdera gehienak erantzuteko ez nintzen gauza, ez nekizkien edo ahaztuta neuzkan datuak**

Egoera horretan nengoela, galderak eta galderak, orroak eta garrasiak belarri parean, erantzun eske: «Si o no». Eta batez ere irainak, mehatxuak, gezurrak: ez dakit zer nintzela (ez dut esan nahi), mendirik ezingo nuela gehiago igo belaunak txikituko zizkidatelako, lagunek salatu eta saldu egin nindutela, zortekoa nintzela 70 urterekin kartzelatik aterako nintzelako, haurren paraderoa, emaztea ere bazekartela, Martin Ugalde hila zela eta Anamari haren emaztea ospitalera eraman zutela. Hurrengo egunean, Martin lurperatu zutela esan zidaten. Eta nik sinetsi egin nien.

**G:** *Zer jokaera izan zenuen zuk?*

**JMT:** Galdera gehienak erantzuteko ez nintzen gauza, ez nekizkien edo ahaztuta neuzkan datuak. Eta, gero epailearen aurrean aitortu nuen bezala, guztiz blokeatuta nengoen, mentalki eta psikologikoki.

Beraiek ematen zizkidaten izenak eta datuak, eta errepikatzearen poderioz buruz ikasi nituen. Hamabost edo hogei aldiz, ez dakit, errepikarazi zizkidaten erantzunak. Ez nekien zertan ari ziren. Ez nien maliziarik ikusten ez galderei, ez erantzunei. Gero konturatu nintzen zertan ari ziren, eta zertarako: deklarazioa buruz ikasten ari nintzen, eta euskal kulturgintza konnotatzea bilatzen zuten.

**G:** *Poliziaren aurreko deklarazioa eginarazi zizuten, ezta?*

**JMT:** Gora eraman nindutenean, ez nekien nora eta zertara nindoan. Epailearen aurrera ninderamatela uste nuen gizajo honek. Bi gizonezko alde batean, eta atzean emakumezko bat zegoen. Buru-estalkia kenduta sartu ninduten han. Atzean zegoena abokatua zela esan zidaten, baina ezin nuela harekin hitz egin, inkomunikatuta nengoelako. Egin nuen deklarazioa, buruz ikasitakoa. Sinatzeko eman zidatenean, neukan indar pixarra atera nuen ez dakit nondik, eta irakurri eta zuzendu nahi nuela esan nien. Ez zien batere graziarik egin. Zuzenketatxo batzuk egin nituen, beldurrak jota. Ez dakit denak jaso zituzten ala ez. Ikara batean pasatu nuen egun osoa gero, traizioagatik noiz ziegara etorri eta aterako ninduten, egurra emateko, esan baitzidaten deus aldatzen banuen txikitu egingo nindutela. Baina ez.

Goizeko 05:30 aldera deklaratu nuen, 3 egun eta 3 gau lorik eta atsedenik gabe igaro ostean, psikologikoki txiki-txiki eginda, izuak janda.

**G:** *Izututa egon zirela nabarmendu dute kalera irten direnek.*

**JMT:** Izuak ere graduak ditu infernu hartan. Noizbehinka isiltasun mortal hura eten egin ohi zen. Inguruko areto batean galdeketalanean hasten ziren: ozen-ozen entzuten nituen galdegilearen orroak, kolpeak, zaratak. Lehen hiru egunetan hiruzpalau aldiz bai. Ni, ikaratuta. Kartzelan esan zidaten grabazioak ote ziren. Ez dakit. Pausoak adi-tzen nituen bakoitzean izutzen nintzen, nire bila ote zetozen berriz, eta areago ziegetako ate-sarraila sekulako zartakoz irekitzen zutenean, zer zetorkidan adieraziz. Pare bat aldiz gutxienez agenteren bat agertu zen ziega-gunera Eusko gudariak gara txistukatuz eta ikusi makusi euskaraz ahoskatuz. Ez dakit agente bera ala beste bat zen gutako bati edo gehiagori esan ziona «gudari» edo «qué ganas te tengo», ziegako leihatila irekiz.

Gehiagotan ere hautsi zen isiltasuna, eta izua areagotu. Sartu berritan, niretik bi gelatara edo, buruarekin pareta joka hasi zen bat, bakean uzteko eskatuz. Han ez zutela inor jotzen esan zion zaintzaileak, benetako edo grabaturiko kolpeak entzuten ziren une berean. Pello omen zen, baina nik ez nuen ahotsa ezagutu, pentsatu ere ez bainuen egin Pello han egon zitekeenik. Geroago, ez dakit noiz, emakumezko bat ere galdeketatik ekarri zuten, negar batean. Izua berriro.

**G:** *Zer galdetzen zizuten?*

**JMT:** Nirekin hiru bide jorratu zituzten: Egunkaria, Elkar-Zabaltzen eta Eusko Jaurlaritza.

Egunkariari dagokionez, ea non hartzen ziren erabakiak, eta nola finantzatu ohi zen. Nik egia esan nien, nire egia: erabaki guzti-guztiak berezko organoetan hartu izan direla, eta finantzaketak bi iturri nagusi izan dituela: herritarren ekarpena eta erakunde publikoen diru laguntza. Behin eta berriz esan nien kanpoko interbentzio edo manipulaziorik ez dela izan, eta horrelako susmorik txikiena izan banu, nik neuk ez nukeela segundo bat iraungo proiektuan. Esplikatu nien (alferrik baina) proiektu kulturaletan mugitu naizela beti, formalki ere politikatik hurrun.

**Goizeko 05:30 aldera deklaratu nuen, 3 egun eta 3 gau lorik eta atsedenik gabe igaro ostean, psikologikoki txiki-txiki eginda, izuak janda.**

Elkar-Zabaltzen konnotatzeko eta



jotzeko gogo bizia sumatu nien. Eta, bide batez, Martin Ugalde Kultur Parkea.

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen esplikazioa ere badute: Eusko Jaurlaritzak ETA laguntzen du Egunkaria lagunduz, baina baita ikastolak lagunduz ere.

Eskema operatiboak ez du akatsik: Euskal Herria euskalduntzearen alde dagoen oro ETAren estrategia ari da indartzen. «Zergatik?», galdetzen nien. Oso garbi: ETAk ez al du Euskal Herri independente, sozialista, bateratu eta euskaldun bat nahi? Euskalgintza azken puntu honetan sartzen da, eta Eusko Jaurlaritza ere bai. Ez naiz ari gehiegikerian...

**G:** *Zein irakurketa egiten duzu Egunkariaren aurkako operazioari buruz?*

**JMT:** Irakurketa ugari egin daiteke: elektorala, politikoa, ideologikoa. Denak dira zilegi. Baina batez ere, nik uste, euskaltzalea. Euskalgintzaren bihotza jo dute, Egunkaria ez baita Euskaldunon Egunkaria bakarrik. Euskalgintzaren indar kohesionatzaile handienetakoa, giltzarria, formatzailea eta informatzailea, legamia, euskal kultura esparru propio eta autonomo gisa tratatzen eta eratzen duena izan da, da eta, espero dezagun, izango dela. Egunkaria bera inoizkorik indartsuen zegoenean itxi dute. Egunkariarekin batera euskalgintzari eta euskal kulturari eraso diote, hauek baitira Euskal Herri euskaldunaren berme eta oinarri behinenak. Gainerako guztia aitzakia da, aitzakia merkea.

Egunkaria aurrez aurre jo dute, baina beste batzuk ukitu; oraingoz bederen, ukitu: Jakin, Argia, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa, Partaide-Ikastolen Elkartea, Herri Irratia. Sarekada honek diseinu zehatzagoa du atzean, seguru nago. Bildurrak nago.

**G:** *Eta erantzuna?*

**JMT:** Sekulakoa. Barruan gaudenontzat zoragarria, arnasa, eta pentsatu nahi nuke halaxe izango dela langile eta Egunkariazaleentzat ere.

Baina badakizu ni ez naizela fio beroaldiez. Biharamunean dut nik burua. Zarataren osteko isiltasunak kezkatzen nau beti. Oraingoan, oraingoz, ez dut motiborik, egia esan. Zulo honetatik begiratuta, iruditzen zait, gizarteko eragile sozial, politiko, sindikal eta kulturalen jarrera ikusita, euskaldunak ulertu duela oraingoan zein den erasoaren sakona. Jendeak ulertu du, zorionez, erantzun bateratu iraunkor bat behar dela, bestela gureak egin duela, banan-banan eroriko direla, gu erori garen bezala. Zeinek esango zuen hori bezperan, ezta?

**G:** *Nola bizi duzu kartzelaldia?*

**JMT:** Lehen unean, infernutik pasatu ondoren, zerua iruditu zitzaidan. Bertakotzen ari naiz pitinka-pitinka, zer erremedio. Kate motzean lotuta gaude, eta maite dugun guztia urruti gelditu zaigu: familia, lagunak, lana, mendia, gure lurra, gure herria. Gorputza bakarrik dut nik hemen; burua eta bihotza hor.

Erretiro aurreratua jaso duenaren bizimodua egiten dut hemen: irakurri, idatzi, paseatu, kirol pitin bat, jan eta lo. Inbidigarria, ezta? Ez al gara gaizki ohituko! Aurreneko pausoak ematen, eta horretan nago oraindik, maitasun handiz lagundu naute bertako euskaldunek: Jagoba, Aitor, Julen eta Gorrik. Ateratzen garenerako, afari agindu diet etxean.

Mundu txikia eta Babel handia da modulu bakoitza, baina euskaldunok guztien begirunea dugu, eta oso ondo moldatzen gara guztiekin.

**G:** *Besterik ba al duzu esateko?*

**JMT:** Bai, Egunkariaren historiaz gainera, norberarena ere badago, segur aski, honen baitan. Min handia egin didate, niri-neuri noski, baina baita nire familiari ere, haurrei batik bat. Milaka dokumentu bahituz nire memoria historikoa ezabatu dute, nire etorkizun profesionala baldintzatu dute, eta moztu. Tratu inhumanoa emanez, gainera, plaza publikoan kriminalizatu eta ohore pertsonala eta profesionala hondatu didate, kakaztu. Batere frogarik gabe. Gogorra da gero betidanik euskara eta euskal kulturaren independentzia babesten ibili den batentzat uholde zikin honetan murgildua ikustea bere burua. Ze estatu da hau? Ze justizia da hau?

**Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen esplikazioa ere badute: Eusko Jaurlaritzak ETA laguntzen du Egunkaria lagunduz, baina baita ikastolak lagunduz ere.**



# Txema Auzmendi:

# «Siempre hay motivos para creer **en la humanidad»**

*Elkarri, abril de 2003*

**G:** *Apenas ha pasado una semana desde que has recobrado la libertad. ¿Cómo conciliamos el sueño después de lo sucedido?*

**TxA:** muy bien, gracias a Dios. Incluso durante los cinco días en los que estuve retenido; claro que estaba hecho polvo de tanto interrogatorio. En aquella celda en la que había un asiento de piedra, incluso allí me dormía. Ya en la cárcel, también dormía muy bien. Un día compartí habitación con Joan Mari Torrealdai, y recuerdo que yo me quedé con la litera de arriba y él con la de abajo. Bromeé con él en que no se asustara si es que me levantaba por la noche para ir a orinar. Que no pasaba nada.

**G:** *en el momento de la detención te encontrabas en un piso con ex-toxicómanos a los que tutelas dentro de tu labor como jesuita. Supongo que el recuerdo lo tendrás impreso casi a fuego. ¿Cómo sucedió?*

**TxA:** una cosa así no se puede olvidar. Me encontraba en un chalé muy grande que está en Gros y que fue un antiguo

noviciado, que se encuentra justo en frente de Proyecto Hombre. De repente escuchamos timbrazos muy fuertes, a eso de las tres de la mañana. En un primer momento pensé que se podía tratar de una persona que había vivido con nosotros y que tuvo problemas con el alcohol y que quizás venía a pedir sitio borracho. Un colombiano que estaba en casa se me adelantó y ya había abierto la puerta para cuando llegué a la entrada. Un Guardia Civil preguntó por José María Auzmendi. Cuando me presenté me dijeron que quedaba detenido y me llevaron a la cocina. El auto me lo leyeron allí. Estaba acusado de colaboración y pertenencia a banda armada. El despliegue era tremendo. Cuando me llevaron, a mi compañero jesuita le dije que no se preocupara por nada, que ya se aclararían las cosas. No me esperaba una cosa así. En la casa hay gente que está en libertad condicional, hay inmigrantes… Mis compañeros se quedaron muy sorprendidos. No podían creer que la policía viniera a por mí.

**G:** *temían que hubieran ido a detener a alguno de ellos, imagino.*

**TxA:** es cierto. Hasta se sintieron aliviados. Les fastidió que se llevaran a uno de sus compañeros, claro, pero por lo menos no eran ellos. Es lógico.

**G:** *a través de las ondas de Herri Irratia se ha podido escuchar el relato de tu detención y del período de incomunicación. Cinco capítulos para la crónica de un infierno.*

**En la casa hay gente que está en libertad condicional, hay inmigrantes… Mis compañeros se quedaron muy sorprendidos. No podían creer que la policía viniera a por mí.**

**TxA:** yo no soy escritor, lo quiero dejar bien claro. Sin embargo, sentí la necesidad de escribir y relatar lo que nos sucedió, así como lo que esta detención me supuso a mí interiormente. Lo escribí para mí, pero creo que merece la pena que la gente sepa lo que yo viví dentro de mí. Después del período de incomunicación, de las diez personas seis quedamos presas y antes de llevarnos a las celdas en Soto del Real permanecimos una noche en lo que denominan Ingresos, que es donde coincidí con Torrealdai. Esa noche le pedí disculpas a Joan Mari Torrealdai porque no podía hablar, porque lo que realmente necesitaba era escribir lo que dentro de mí aún estaba fresco. Escribí en la parte de atrás del auto de unas veinte páginas que me habían entregado. En euskara y a veces en alemán, para que por lo menos en caso de que me lo quitaran la traducción se les hiciera más costosa.

**G:** *la extrañeza de la detención. Tres días incomunicado, más dos de prórroga. Interrogatorios. ¿Puede alguien escribir algo coherente?*

**TxA:** nunca estuve en estado de shock. Yo gracias a Dios no fui golpeado, aunque sí humillado. Si consideras que el ser humano es lo más grande que hay en este mundo, ver que te desprecian y te humillan es muy duro. Pese a todo, no me deshizo por dentro. Nunca perdí mi condición de ser humano, ni mi interioridad, ni mi libertad. Es más; contradecía a los policías, les contestaba. Temía que me golpearan, que me hicieran «la bolsa», pues en una situación límite no sabía cómo podía reaccionar. Pero nada de esto pasó conmigo.

**Me preguntaban de todo, desde cuestiones personales a mi opinión sobre la teología de la liberación; sobre el pueblo vasco, Euskaldunon Egunkaria, Herri Irratia…**

**G:** *¿cómo fue el trato por parte de los policías?*

**TxA:** de San Sebastián me llevaron para Madrid hacia las ocho y media de la mañana una vez hubimos registrado la sede de Egunkaria en Donostia. En el coche fui custodiado por cuatro guardias civiles que por lo menos me quitan las esposas. Me obligaron a ir con la cabeza gacha y más tarde me pusieron una capucha. El interrogatorio fue incesante, en un tono más bien amable.

**G:** *¿qué querían saber? ¿Qué te preguntaban?*

**TxA:** me preguntaban de todo, desde cuestiones personales a mi opinión sobre la teología de la liberación; sobre el pueblo vasco, Euskaldunon Egunkaria, Herri Irratia… Sobre la radio me preguntaron ya en el viaje hacia Madrid. Yo, por supuesto, en Donostia no dije nada acerca de Herri Irratia para evitarme los registros también aquí. Me preguntaban constantemente sobre quién era el testaferro de ETA en Egunkaria. Nunca ha habido un testaferro de ETA en Egunkaria. En el Consejo de Administración siempre hemos sido autónomos para tomar las decisiones que en cada momento creíamos que eran las oportunas. Me preguntaban sobre quién era el comisario político en Egunkaria. Nadie ha sido tal cosa en Egunkaria.

**G:** *después de cinco horas de viaje llegas a Madrid.*

**TxA:** no sabía nada del resto de detenciones. Sabía que me habían

**Constantemente escuchabas gritos. No sabías si era de día o de noche. Escuchabas, de repente, que alguien decía «Ez dago barkamenik» (No hay perdón), «Ai ama!» (¡Mi madre), «!Dejadme en paz!», «!Llevadme al juez!»...**

llevado como secretario del Consejo de Administración del periódico para que hiciera de testigo durante los registros, pero no pensaba que pudiera haber nadie más detenido. Me metieron en un calabozo de dos metros de ancho por tres de largo y dos y medio de altura. Había un colchón de espuma con dos mantas encima que tenía como base un camastro de piedra. Aquí me llevaron con los ojos cerrados y la cabeza gacha. Esto era muy humillante. Cada vez que te llamaban para algo, o para un interrogatorio, o que salías para ir al baño, te obligaban a ir con la cabeza gacha y con los ojos cerrados. Esto es absoluta sumisión.

Constantemente escuchabas gritos. No sabías si era de día o de noche. Escuchabas, de repente, que alguien decía «Ez dago barkamenik» (No hay perdón), «Ai ama!» (¡Mi madre), «!Dejadme en paz!», «!Llevadme al juez!»... Parece ser que era Pello Zubiria. En otro momento, y no sé quién era, a alguien creo que llegaron a sedarle por un rato porque durante dos horas cesaron los gritos y hubo un silencio sorprendente, pero de nuevo gritó, «!Llevadme al juez!», y le contestaron que le llevarían cuando tocara, pero no cuando él quisiera.

**G:** *en el sótano coincidiste con Xabier Oleaga.*

**TxA:** ni podíamos mirarnos a la cara, ni podíamos hablar. Pensábamos que estábamos controlados constantemente. En estos tres días nada más nos preguntamos «Ondo zaude?» (¿Estás bien?). Tanto Xabier como yo contestamos que sí, pero ante el pánico que teníamos no volvimos a dirigirnos la palabra. Mientras tanto, nos humillaron todo el rato. Un día que estaba sólo en la celda vinieron y me dijeron, «Este es el cura guapo y hoy tengo ganas de ostiar a alguien». E insisto en que a mí no me pegaron. En todo caso, toda esta conculcación de los derechos más elementales no se puede permitir en un estado de derecho. Este trato no lo puede aguantar una persona de veinte y pocos años. En nombre de Dios, en nombre de la razón de estado, mucha gente ha pasado por esto en muchos sitios del mundo, y ha sido martirizada y maltratada. Por mi parte, siempre intenté extraer todo lo positivo de semejante experiencia.

**G:** *Martxelo Otamendi ha denunciado torturas. Entre otras prácticas, sufrió la maldita bolsa que poco menos pretende desertizar de aire los pulmones.*

**TxA:** yo también creo las denuncias de tortura, sin la menor duda. Lo que pretenden es deshacerte para que digas lo que ellos quieren escuchar. Cuando me preguntaban sobre el testaferro de ETA en el periódico, una y otra vez, insistía en que no había nadie. Yo les decía que si querían un nombre y que si me pegaban y me torturaban para conseguir un nombre, que al final yo les diría algo, pero que no les diría la verdad, que mentiría. Que la verdad era que nadie era testaferro de ETA en Egunkaria. Nadie.

**G:** *¿qué decías entonces?*

**TxA:** no dejaban de pedirme nombres. Por ejemplo, yo nombraba a Joxemi Zumalabe como alma mater de Egunkaria, y les explicaba cómo Joxemi fue capaz de aunar sensibilidades muy distintas en torno a un periódico en euskara. También les hablé de Joseba Jaka, de su instinto y olfato de empresa. Ellos, mientras tanto, me decían que dejara a los muertos en paz, que ellos querían nombres de personas vivas. En otro momento, hablé sobre una carta que le he escrito a Txelis. Hace unos cinco años Txelis escribió una carta conmovedora donde relata su transformación interior a raíz de la lectura de los evangelios. Yo me emocioné leyendo esa carta. La carta estaba dirigida a los grupos cristianos. Era la confesión de Txelis. Estas mismas Navidades le contesté y le explicaba la grata sorpresa y la dicha que me había supuesto aquella carta. «!Déjese usted de ostias!»; me dijeron. «¿Cómo me voy a dejar de ostias, si éste es el eje de mi vida? Entender que el ser humano puede cambiar»; les contesté.

**G:** *los que te conocen comentan que no eres de los que callan la razón. ¿Cómo fue la declaración ante el juez?*

**TxA:** yo ya le dije al juez que dentro de un par de años me volverá a detener por haber participado en los inicios de Elkarri, porque seguro que aparezco en algún papel de ETA. Que dentro de ocho o diez años me volverá a

**Yo ya le dije al juez que dentro de un par de años me volverá a detener por haber participado en los inicios de Elkarri... Que dentro de ocho o diez años me volverá a detener por participar en Arrosa... Nada tiene sentido**



detener por participar en Arrosa que es un proyecto común de radios en euskara. Nada tiene sentido.

**G:** *tus huesos terminan en la cárcel de Soto del Real. A tus micrófonos has invitado a los marginados, a los excluidos, a los sin voz, cuyos cuerpos tantas veces se pudren entre rejas. ¿Cómo has visto ese mundo de intramuros?*

**TxA:** ya lo conocía anteriormente. Muchas veces he visitado a los presos de la cárcel de Martutene dentro de mi trabajo en la pastoral penitenciaria, aunque recientemente me habían prohibido entrar. Cuando vivía en el barrio donostiarra de Alza había muchos vecinos que cumplían condena por problemas de drogas. Había presos de ETA del barrio, algunos sobrinos de jesuitas también. Así, yo les visitaba a la cárcel. Sea como fuere, es verdad, termino en la cárcel, y aunque suene grotesco, la cárcel ha sido una bendición. Fue un descanso. Me encontré con un grupo de vascos que fueron muy amables y solícitos.

**G:** *además, conoces muy de cerca la realidad de los presos sociales.*

**TxA:** los presos sociales no me asustan para nada. Son personas. A mí me asustan las personas que te quieren humillar y maltratar, esas personas que han perdido el control sobre sí mismas. Por las mañanas empecé a rezar con un grupo de testigos de Jehová. Empecé a enseñar euskara durante dos horas a la mañana a un joven de Vitoria que me pidió que le ayudara. A cuatro personas les enseñé algo de alemán. Conocí a un colombiano que llegó el martes. Hay que tener en cuenta que Soto del Real es una cárcel preventiva por lo que algunos están hasta 18 meses sin juicio. A este hombre le habían detenido porque llevaba treinta gramos de marihuana que estaba vendiendo en bolsitas. El fiscal pedía tres años de cárcel y no tenía ni siquiera abogado. Me vino a pedir consejo. Junto con un joven de Pamplona, Mikel Soto, le ayudamos a escribir una carta al colegio de abogados para que le nombraran uno y para que le preparara el juicio. De lo contrario, tal vez se chupe tres años de cárcel por treinta gramos de marihuana. Yo no sé de leyes, pero esto me parece una injusticia muy grande. Esto no puede ser justo. También conocí durante estos días a personas que reconocían que se habían equivocado, que se me confesaron en este sentido.

**... y aunque suene grotesco, la cárcel ha sido una bendición. Fue un descanso. Me encontré con un grupo de vascos que fueron muy amables y solícitos**

**G:** *en la cárcel, ¿te relacionaste con el resto de detenidos?*

**TxA:** una vez que nos llevaron a los módulos, yo me quedé solo. A Torrealdai y a Xabier Oleaga los pusieron juntos. A Iñaki Uria y a Xabier Alegria los llevaron a módulos también distintos. Cada módulo es como un piso del mismo barrio, pero sin comunicación entre los presos de cada uno de ellos. Una vez me tragué una película horrible para visitar a algunos vascos que estaban en el módulo 5. Los presos políticos vascos de Soto del Real han conseguido compartir la celdas y así lo exigen. Yo ya les dije que si a mí me mandaban un preso social, no lo iba a rechazar. Durante unos días estuve con un hombre de Vitoria que se presentaba a sí mismo como una persona con trastornos mentales por lo que había delinquido. Luego lo llevaron a enfermería y ya me quedé solo.

**Una vez me tragué una película horrible para visitar a algunos vascos que estaban en el módulo 5.**



# Jose Elorrieta:

# «Egunkariaren auzia test bat da Ibarretxeren planarentzat»



*Egunero, 2003ko martxoaren 12a*

**Baikor agertu da Elorrieta. Estatuaren eta Euskal Herriko prozesu subiranistaren arteko dialektikan "guk irabaziko dugu" esanez.**

**G:** *Zer deritzozu Egunkariarekin gertatutakoari?*

**JE:** Garbi gelditu da planteamendu antiterroristaren gerizarekin nola erasotzen zaion arlo kultural eta komunikatiboari. Eta agerian geratu da geriza hori erabiliz nolako inpunitatez jokatzen duten. Inpunitatea Espainian, jendeak eta erakundeek esplikazio hori erraz onartzen baitute, salbuespenak izan arren. Euskal Herrian, ordea, garbi gelditu da non dagoen zuzenbide estatua, egin dutena egiteko, batetik Egunkariarekin eta bestetik Martxelok salatutako torturekin.

Erantzuna handia izan da Euskal Herrian.

Euskal Herrian honek guztiak beste neurri bat izan du. Euskal Herrian mundu guztiak sinesten dio Martxelori. Amildegi bat dago

Euskal Herriko iritzi publikoaren eta Estatuak egiten duenaren artean. Eta horren isla adierazgarriena Donostiako manifestazioa izan zen.

**G:** *Zure ustez, zer izan zen Donostiako manifestazioa?*

**JE:** Gauzak egiteko dugun ahalmenaren erakustaldi bat izan zen. Ez zegoen ia denborarik, egun batetik bestera deitu eta egin zen, eta zenbat jende bildu zen... Aurreko astean gerraren kontra protesta egiteko manifestazioa egin zen, eta handik zazpi egunera, ia planifikatu gabe beste bat egiteko gai izan zen jendea, eta Donostia txiki utzi zuen. Nolako ahalmen dugun gauzak egiteko! Masa kritiko oso sentibera daukagu Euskal Herrian, politikoki plurala, betiere espazio jakin baten barruan. Zenbat jende dagoen, zer sentsibilitate... Alderdi bati ezinezkoa zaio han gertatu zena kapitalizatzea. Horrelako egoera batean baikorra izateak nahiko friboloa dirudi, baina, egun batzuetara, manifestazioaren eta gainerako erreakzioen ondoren, Espainiako unibertsitate bateko irakasle bati esan nion: «Zein ondo egiten dugun ETA gabe, zein ondo».

**G:** *Eta honetatik guztitik zerbait atera daiteke?*

**JE:** Bakoitza bere arloan, kulturalean, sozialean edo politikoan mobilizatzeko gai gara, gure ikuspegiak, gure proiektuak defenditu eta aurrera eramateko. Gure herrian gaitasuna dago. Garbi ikusten da prozesu zibil batean gaudela eta Estatuak sekulako astakeriak egin behar dituela hori gelditzeko. Dialektika hori oso garbi ikusi da Egunkariaren auzian. Noraino egin behar du jauzi Zuzenbide Estatuak bide hori trabatzeko? Baina dialektika horretan guk irabaziko dugu. Estatuak asko galtzen duelako. Horrelako gauzak ez zaizkio doan irteten. Indarra eta inpunitatea daukanez, badirudi edozer egiteko gai dela, baina bide horretan jarraitzen badu, gero eta garbiago geldituko da azaldu dudan dialektika hori.

**G:** *Zer egin behar dute erakundeek, alderdiek, sindikatuek...?*

**JE:** Bakoitzak bere ardura dauka. Horrelako erantzun bat planteatzeko orduan, segur aski, sindikatuontzat errazagoa izan da, ELA eta LAB, beste sindikatu batzuekin batera, lehendik ere lan bateratu bat egiten ari baikinen negoziazio kolektiboan. Baina iazko ekaineko greba 20rako planteatu zenean, guk 19rako deitu genuen, eta orduan ez zegoen harreman hori. Errazagoa da guretzat, baina momentu kritiko batean sindikatuek erakutsi dugu gure desadostasunak baztertu eta zer edo zer batera egiteko gai garela.

**... irakasle bati esan nion: «Zein ondo egiten dugun ETA gabe, zein ondo».**

**G:** *Eta alderdiak?*

**JE:** Zer gertatu zen Donostiako manifestazioan? Gutxiengo batek kritika egin zuela, bai lehendakaria falta zelako eta bai pertsona jakin batzuei ere. Nik pentsatzen dut han egon zirenak guztiak onartu behar zirela. Ni ez nintzen eta ez nago ados gertatu zenarekin, baina gertatu zen hori ez da puztu behar. Dena dela, nik lehendakaria ez zela egon nabaritu nuen. Jaurlaritzaren ordezkaritza bat egon zela esatea... errespetu guztiarekin, han lehendakariak eta Jaurlaritza osoak egon behar zuen.

**G:** *Baina zerbait egingo dute alderdiek?*

**JE:** Egunkariaren auzia aukera bat da erakusteko bakoitza noraino dagoen prest azterketeta politiko batekin koherente izateko. Denok egiten dugu egoeraren diagnostiko antzekoa; zorionez, arazoa ez dago diagnostikoan. Kontua da diagnostiko horrekin koherente izatea. Jakinik nola dagoen gure errealitate politikoa, momentua da koherentzia bat izateko. Egunkariaren auzia test bat da Ibarretxe planaren sinesgarritasunarentzat. Zaila da pentsatzea norbaitek gehienekoa egingo duela, kontsulta bat, gutxienekoa egiten ez duenean, hau da, komunikabide bat defenditzea. Eta gogoeta sakonagoa eginez, Egunkariaren itxiera test bat da prozesu subiranista baten apustua egiten dugunontzat.

**Egunkariaren auzia aukera bat da erakusteko bakoitza noraino dagoen prest azterketeta politiko batekin koherente izateko**

**G:** *Zer esan nahi duzue biharko mobilizazioekin, lanuztearekin eta Casillako ekitaldiarekin?*

**JE:** Egunkariarekin gaudela, eta ez bakarrik Egunkariarekin: baita mundu kultural batekin ere. Haien aliatuak gara prozesu subiranistan. Eta enpresetan eta langileen artean euskarazko prentsari bultzada emateko ere baliatuko dugu biharko guztia, Euskal Herriko enpresa batzorde guztietara Egunero edo datorrena eramateko.

# Aidan White

## Kazetarien Nazioarteko Federazioko Idazkari Nagusia

# «Itxiera erronka bat da euskal eta espainiar kazetarientzat»



**Edozein egunkariren ixtea, egunkari profesional bat baldin bada, prentsa askatasunaren aurkako ekintza da**

**Aidan Whitek, IFJren izenean, Egunkariaren itxiera gaitzetsi zuen ohar baten bidez. Polizi operazioa gertatu zenetik bi hilabete beteko direnean, telefonoz erantzun die Eguneroren galderei.**

**G:** *Zer iritzi duzu Egunkariarekin gertatutakoaz?*

**AW:** Edozein egunkariren ixtea, egunkari profesional bat baldin bada, prentsa askatasunaren aurkako ekintza da. Eta kasu jakin honetan, %100ean euskaraz argitaratzen zen euskarazko egunkari bakarra zenez, kezka are handiagoa da. Horregatik agertu genuen gure kezka itxi zutenean: prentsa askatasunaren eta pluralismoaren aurkako mehatxua zela adierazi genuen. Galdera da: ezin al zen ikerketarekin jarraitu Egunkaria itxi gabe? Beharrezkoa al zen? Aldi berean adierazi nahi dut guk, federazio gisa, ñabardurarik gabe gaitzesten ditugula terrorismoa edota bestelako jarduera ilegalak sustatzen dituzten erakundeak. Horregatik kezkaz hartu dugu batzuek gure adierazpena terrorismoaren aldekotzat interpretatu izana. Hori onartezina da. Guk oso gogor salatu izan ditugu kazetarien aurkako ekintza terroristak: Ipar Irlandan egin dugu, Nigerian egin dugu eta halakoak gertatu diren leku guztietan egin dugu, oso modu argian.

**Egunkariari helburu terroristekin erabilia izan zela leporatzen bazaio, hori egia dela oso-oso argi frogatu behar da**

**G:** *Itxieraren aurkako adierazpena plazaratu zenutenean kritikak jaso zenituzten, beraz.*

**AW:** Izan dugu kritikarik, baina auzi nagusia, pluralismoari buruzkoa, ondo ulertua izan zela uste dut. Bestalde, Euskal Herrian gertatzen ari dena konplexua dela adierazi zidaten zenbait lankidek, eta egia da konplexua dela han gertatzen dena, eta ondo ulertu beharra dagoela iritziak eman ahal izateko. Eztabaidatu dut gaia Madrilgo eta Espainiako lankideekin, eta argiago ulertzen ditut zenbait gai, baina ez dago alderik adierazpenaren bidez agertutako iritziaren eta orain dugun iritziaren artean.

**G:** *Auzia ikertzen ari denean erabaki du epaileak Egunkaria ixtea. Ez zaizu iruditzen gutxienez epai bat egon beharko lukeela ixtea bezalako erabaki larria hartzeko?*

**AW:** Egunkariari helburu terroristekin erabilia izan zela leporatzen bazaio, hori egia dela oso-oso argi frogatu behar da. Eta gure ustez, ez da frogatu edo justifikatu Egunkariaren ixtea. Ekintza hori justifikatzen duten froga argien zain gaude oraindik.

**G:** *Ipar Irlandakoa zara. Hango gatazkaren historian izan al da egunkari ixte edo antzekorik?*

**AW:** Prentsa askatasuna murriztu izan da. Esate baterako, Gerry Adams eta Sinn Feineko beste buruzagien ahotsak telebistetaz ematea debekatu zen garai batean. Baina egunkaririk itxi, ez. Republican News aldizkaria terrorismotik oso hurbil dagoen komunikabidetzat hartua izan da, eta uste dut askoz ere hurbilago dagoela terrorismotik Egunkaria baino, baina ez dute inoiz itxi.

**G:** *Mundu zabalean azkenaldian beste egunkaririk itxi duten badakizu?*

**AW:** Izan dira kasuak, non izan diren orain zehazterik ez dudan arren, baina nire ikuspuntutik, egunkari baten ixtea hain da gertaera larria, itxi aurretik erabat frogatuak eta justifikatuak egon behar dutela itxiera horren arrazoiak.

**G:** *Kasu hauetan oro har, eta Egunkariaren itxieraren auzian partikularki, zer egin dezake zuen federazioak?*

**AW:** Eztabaida piz eta zabal dezakegu, eta hala egin dugu Egunkariaren kasuan. Iritzi gogorra adierazi dugu, eta auzi honi nola erantzun eztabaida sustatu dugu. Egunkariaren itxiera erronka bat da kazetari guztiontzako. Erronka bat euskal kazetarientzat, baina baita Espainiako kazetari guztientzat ere, elkartasuna erakusteko, eta aztertzeko zer ondorio dituen prentsa askatasunarentzat. Prentsa askatasunaren tradizio handia dago Espanian, eta euskal kazetarien eta kazetari espainarren arteko elkartasuna funtsezkoa da prentsa askatasunaren aurkako mehatxu guztiei aurre egiteko. Beraz, espero dut elkarrizketa gehiago izatea eta elkarlan eraginkor handiagoa izatea Espainian prentsa askatasuna defendatzeko. Oso inportantea da. IFJk ahal duen guztia egingo du ildo horretan.

**G:** *150 langile lanposturik gabe gelditu dira, eta haien aurkako akusaziorik ez dago.*

**AW:** Hori da guk dugun kezkarik handienetakoa. Egunkari bat ixtea ez da prentsa askatasunaren aurkako mehatxua bakarrik, ehunka lagunen eta euren familien bizimoduaren aurkako mehatxua ere bada. Hainbeste jendek lanpostua galtzea oso berri txarra da, eta galdera hau eragiten du berriro: egunkari baten itxierak erabat justifikatua egon behar du, eta kasu honetan ez gaude komentzituta hala izan dela. Lanpostuen galtze hau izugarria da, eta espero dugu posible izatea Egunkaria berriro zabaltzea, eta azkar gainera.

**G:** *Euskarazko egunkari bakarra zenez, euskararen aurkako erasoa ere izan dela uste duzu?*

**AW:** Plazaratu dugu gure kezka pluralismoan duen inpaktuagatik. Jakina, euskara oso-oso garrantzitsua da. Gure kezken artean dago. Badakigu Europako hizkuntza gutxiagotuetako taldeek kezka agertu dutela Egunkariari gertatu zaionagatik, eta guk erabat bat egiten dugu kezka horrekin.

**Europako hizkuntza gutxiagotuetako taldeek kezka agertu dutela Egunkariari gertatu zaionagatik, eta guk erabat bat egiten dugu kezka horrekin.**

**G:** *Tortura salatu dute atxilotutako batzuek, eta Espainiako Gobernuak ikerketa zabaldu beharrean haien aurkako kereila ezarri du, akusasio faltsuak egitea leporatuz. Zer iritzi duzu?*

**AW:** Tortura salaketak baldin badaude, arau argiak daude nazio eta nazioarte mailan horiek egoki ikertuak izan daitezen. Nazioarteko legeria oso argia da torturari buruz eta torturaren ikerketari buruz. Eta salaketak egon badira, ikertu egin behar dituzte.

# Sindikatuen erantzuna...




*Ekimen sindikalaren manifestua*

## Miles de trabajadores/as secundaron el paro de una hora y abarrotaron La Casilla en apoyo de Egunkaria

# EGUNKARIA AURRERA

**ELA Astekaria, número 99**
*14 de marzo de 2003*




Miles y miles de trabajadoras y trabajadores pararon el jueves, 13 de marzo, respondiendo a la convocatoria sindical lanzada por ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, ELB, HIRU y EGAS con motivo de la jornada de movilización en favor del euskara, Egunkaria, y la libertad de expresión. El día culminó con un acto que llenó el pabellón de la Casilla, en Bilbao.

La hora de paro de mediodía tuvo eco en centenares de empresas, pequeñas, medianas y grandes, y numerosas concentraciones en toda Euskal Herria. La clase trabajadora expresó la reivindicación unánime de un diario en euskara, el rechazo de su cierre –prácticamente definitivo, por la orden judicial de clausura por seis meses– y el apoyo a los/as trabajadores/as que se han quedado sin empleo.

Si la respuesta en la calle fue masiva, el pabellón de la Casilla se quedó pequeño para el gentío –más de 6.000 personas– que acudió desde todas partes, desde Iparralde hasta la Ribera navarra. El acto, presentado por la periodista de ETB Maddalen Iriarte, comenzó y acabó con los bertsolaris Igor Elortza y Unai Iturriaga, y fue animado por el grupo de Tapia y Leturia. Iriarte agradeció al público que había acudido, por encima de todos los obstáculos (un autobús de ELA fue retenido durante una hora por la Guardia Civil).

Entre las intervenciones, Christian Harluxet, de ELB (que también representaba a EHNE) recordó que la libertad de expresión y el derecho de información son derechos de todos los ciudadanos, y que ningún gobierno puede negarlos, “cerrando un diario, deteniendo y torturando a sus periodistas”.

Rakel Goñi, periodista de ELA, leyó el mensaje de solidaridad enviado por la Confederación Mundial del Trabajo (CMT), y Jose Mari Irazusta, de Argia, agradeció las muestras de apoyo con su director, Pello Zubiria, encarcelado a pesar de su grave enfermedad.

Martxelo Otamendi agradeció especialmente la solidaridad que ha manifestado el pueblo catalán, en actos multitudinarios como el que el mismo jueves, a la hora del acto de Bilbao, reunía en la plaza de Sant





Jaume a miles de personas. Otamendi, que afirmó que al denunciar torturas no había seguido otro manual que el de su dignidad, pidió a los presentes un esfuerzo para que él y las personas detenidas en la operación sean las últimas en sufrir torturas: “Abramos un macroproceso del pueblo vasco contra el Estado español”.

Tras las intervenciones de Belén Arrondo (STEE-EILAS), que reivindicó el valor de la palabra, y Juan Mari Azkarate (ESK), que resaltó la necesidad del esfuerzo de todos y todas para contrarrestar este ataque contra la libertad de expresión y el euskara, Juan Mari Larrarte, en nombre de la gente que trabaja en Egunkaria, aseguró que “nos han cerrado, pero no nos han acallado”, y recordó, ahora que se prepara un nuevo periódico, las bases del proyecto que arrancaba hace trece años: un periódico nacional, abierto, plural, independiente de partidos e instituciones, pero también de medios no euskaldunes, nuevo y renovador.

Edurne Brouard, coordinadora de la Korrika 13, que está a punto de arrancar, invitó a participar en ella, y aseguró que “este es el momento de construir el futuro del euskara”.

Xabier Mendiguren, presidente de Kontseilua, interpelaba a las instituciones para que defiendan al euskara y a las entidades que lo impulsan de los ataques y abusos de los poderes políticos, y reclamó de las fuerzas políticas un amplio acuerdo, para el que hace falta gran valentía: “esa sería la mejor aportación que pueden hacer”.

El rechazo a la guerra estuvo presente en el acto mediante unas palabras de la presentadora y la proyección de unas imágenes del bombardeo de Gernika, con música de Mikel Laboa.

Rafa Diez, de LAB, propugnó la necesidad de la unidad entre abertzales,  y José Elorrieta agradeció a la gente que ha hecho posible Egunkaria su aportación a la construcción nacional, y porque “han conseguido hacer un diario independiente y militante, comprometido con la libertad de Euskal Herria”. El secretario general de ELA se refirió también a la respuesta social contra la clausura, diciendo que esa movilización “es nuestra mejor arma; no necesitamos otras armas”. Elorrieta terminó también su intervención con un llamamiento a la unidad entre abertzales.

El acto terminó con música de Tapia y Leturia y el saludo de los bertsolaris.



# Haserrea proiektu bihur dezagun

**German Kortabarria**
*Egunero, 2003ko martxoaren 9a*

Joan den asteazkenean Martxelo Otamendi agurtzeko aukera izan nuen. Martin Ugalde Kultur parkean egiten ari ginen bileratxoan azaldu zen une batez Egunkariako zuzendaria eta, eskua emanez, "eskerrik asko" esan zigun han ginen ELA eta LABeko ordezkariei. "Eskerrik asko zeuri", erantzun nion, iruditu baizitzaidan euskaldunok zor handia dugula Martxelorekin, bera bezala atxilotuta eraman zituzten Txema, Joan Mari, Xabier biak, Inma, Iñaki, Luis eta Ferminekin dugun bezalaxe. Eskerrak zor dizkiegu denei, eta beste hainbati, agian falta izan direnean eta eurek bultzatako proiektua etenda geratu denerarte behar adina ez baikara jabetu eskas zaigun horren balioaz eta Egunkariaren moduko zerbait sendotzeko eurek eta euren modukoek egin behar izan duten lan eskergaz.

Egunkaria, Argia, Jakin, AEK, Zabaltzen eta abarri so eginez gero, azken hamarkadetan aurrerapauso izugarriak egin direla ikusiko dugu, euskalgintzaren eta euskal kulturaren esku jarri diren tresna, teknika, hizkuntza, azpiegitura eta enpresa-egiturei dagokienez (ahuleziak ahulezia, Joan Mari Torrealdaik duela gutxi aipatzen zuen legez). Eta horren meritoa euskalgintzako erakunde, talde eta pertsonek egin dute lan eskergari eman behar zaio, ahaztu ezin bada ere erakundeek (batzuetan gehiago, beste batzuetan ez hainbeste) proiektuok gauzatzeko eman izan duten laguntza.

Estatuak, bere aldetik, eta batik bat gero eta argiago frankismoaren oinordeko moduan jokatzen ari den PPk, fenomeno kezkagarritzat hartu du euskara indartu eta gorpuztea. Hizkuntzaren aldeko jarrerak eta euskararen itxura gero eta osoagoak ematen dien buruko mina argi islatzen zuen duela sei urte Kataluniako eta EAEko PPren buruzagiek egin zuten bilera bati buruzko agiriak (PPk gezurtatu arren, egia kutsu nabarmenegia zuenak). Eta, kezka estrategia bihurturik, estatutik azken urteotan euskararen hazkunde prozesu horren aurka lanean dihardute jo eta ke. Aski nabarmena da, esate baterako, estatuaren sail edo lantalderen bat etengabe ari dela euskarazko hedabide, ikastetxe, adierazpide eta ekitaldi orotan, baita ludikoenetan ere, esan eta egiten dena aztertzen, jarraipen zehatza egiten, gero informazio hori, gehienetan erabat desitxuratuta, uneko politikaren beharrizanen arabera, euskararen eta euskalgintzaren aurkako kanpaina edo auzibidetan erabiltzeko. Eta horretara jarririk, lortu dute, gutxienez Espainiako hedabideetan (eta bertoko askotan) errepikatzen diren berri, iritzi eta mezuetan, euskara eta euskal kultura gatazka, zatiketa soziala edo bortizkeriarekin lotuta agertzea, euskara estereotipo negatibo bihurtzea, alegia.

Epe luzeko ahalegin horren azken alea oraindik martxan dagoen operazio judizial-polizial-politikoa dugu. Egunkaria kendu egin digute, eta bere inguruan lanean ari den hainbat lagun atxilotu, espetxeratu, laidotu eta torturatu dute. Ez da, esan bezala, estatuko indarrek gure kultura edo hedabideen aurka jo duten lehenengo aldia, eta ziurrenik ez da azkena izango, baina eraso honek bereziki ukitu gaitu, haserre bizia piztu du euskal gizartean eta estatuaren logika ankerra (edozein bitartekok balio du) inoiz baino gordinago utzi du agerian.

Beraz, erantzun beharra daukagu. Baina ez edonola, itsukeria eta alderdikeria alde batera utzita baizik. Oldez olde datozen erasoak ez baitira inolaz ere itsuak, estrategia orokor bati jarraiki egiten dituzte, une zehatza epe laburreko taktikaren araberakoa bada ere: Prestigetik isuritako galipota eta Iraken aurka datorren erasoa medio Espainiako gobernuaren ospea eta boto-intentzioaren gainbeherak badu ziurrenik aukeratutako unearekin zerikusirik.

Baina diodan moduan, gehiegikeria horiek estrategia baten arabera egiten direnez, geuk ere erasoari buru egitekotan argi izan behar dugu nora jo nahi dugun, lan munduan, komunikazioan, irakaskuntzan edota kulturgintzan epe luzeko zein helburu ditugun eta zein bitarteko erabiliz gauza ditzakegun. Oraingo haserre hori eguneroko lan eta konpromiso, azken batean proiektu, bihurtu behar dugu. Eta alde batera utzi beharra dago, behingoz, eraikuntza eragozten duten estrategia oro, Egunkariaren eta beste sektore batzuren aurkako erasoetarako aitzakia eman eta dinamika eraikitzailea oztopatu eta ahultzen duen edozein bitarteko. Eta banago erabat atzeraezina bihurtu dela herri eraikuntzaren edozein arlotan, baita euskalgintzan ere, bitartekoen eztabaida; eztabaida horrek geure arteko zatiketa lekarkeen aitzakiarekin onargarriak ez diren bitartekoak erabiltzen dituenaren ukiezintasuna ezin baitugu onartu.

Zerbait eraiki nahi dugu; hasteko, euskara eta euskarazko hedabideak aintzat hartzen dituen gizartea. Martxoaren 13koa izan liteke norabide horretan garamatzan lehen urratsa, itxi duten kazeta berriro atereaz, denon bultzadaz indartuta eta hobetuta. Eta 13an agertuko dugun konpromisoan ez dugu atzera egingo: Bai euskarari. Bai Egunkariari.

# Etorkizunari begira...




## Martxelo Otamendi gurean:

# Zabaltasunaz eta kioskoaren txikiaz

*Egunero, 2003ko apirilaren 3a*

Euskarazko prentsari buruzko hitzaldia eman zuen Martxelo Otamendik Manu Robles-Arangiz Fundazioak gonbidatuta

Zabala eta plurala zer den eta Euskal Herrian zeintzuk hedabide diren zabaltasun horren eredu. Horiexek dira Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendariak airean utzi zituen galderak, atzo Robles-Arangiz Fundazioak antolaturiko hitzaldian, Bilbon.

Euskarazko prentsa idatziaren egoerari gainbegiratu zorrotza eman ondoren, Otamendi ELAko egoitzako biltzar aretoa lepo betetzen zuten afiliatuen esanetara geratu zen. Egunkariaren itxierari buruzkoak eta proiektu berriaren nondik norakoak izan ziren entzuleen kezka nagusiak. Hasierako galderak herabeak ziren: hamairu urteetako hobekuntzaren arrazoiak zeintzuk izan ziren, zergatik joan den erosle eta irakurle kopurua handitzen. Batek askoren gogoan zegoen gaia proposatu arte: nolakoa behar du izan euskarazko kazetak zabaltasunari dagokionean?

Otamendik esan zuenez, «ahalik eta jende gehiena Egunkariarekin eroso sentitzea izan da

gure erronka, Euskal Herrian dagoen aniztasuna kontuan hartuta elementu komunak ematen ahalegindu gara». Honen ildotik zehaztu zuen Egunkaria Euskal Herrian dauden «sentsibilitate aurrerakoiak, solidarioak, ezker-zentrokoak eta euskaltzaleak» biltzen saiatu dela. Otamendik aitortu zuen alderdi popularreko kide batek «zail» izango duela bere burua hortan isladatuta ikustea.

Zabaltasunaren azterketan Egunkariak nota txarrik ez lukeela lortuko adierazi zuen jarraian eta gutxienez inguruan dauden hedabideak adina zabala eta plurala dela berretsi. «Nork tratatu du Ibarretxeren plana guk baino hobeto?», bota zuen adibide gisa, eta jarraian gogoratu «itxi gintuzten aste berean Fernando Savater Aski Da-ko kidea, Imanol Larzabal ETAk mehatxatuta dagoen kantaria eta Andonio Basagoiti Bilboko PPko alkategaia elkarrizketatu genituen gure egunkarian. Hori ez du zabaltasunaren eredu den El Pais-ek ere".

Egunkariako zuzendariak konparaketa bat eginez abiatu zuen bere hitzaldia. Bildutakoen memoria lanean jarri zuen gogoratzeko duela 25 urte, kasurako, Euskal Herriko kiosko batean aurki zitezkeen euskarazko aldizkarien (eta egunkarien) izenak. Bakan batzuk baino ez zituzten gogoratu eta Martxelok halaxe idatzi zituen arbelean: Zeruko Argia, Jakin eta Elhuyar. Memoria kolektiboak ez zuen gehiagorako eman, garai haietan besterik ez zegoelako. Bere parean, baina beste zutabe batean, garai bertsuan eta kiosko bertsuan, gaztelaniaz idatziriko prentsaren izenak jarri zituen, honetan ere entzuleen laguntzarekin. Zerrenda luzea osatu zuten arbelean, arbelaren belzgunea txiki geratzeraino.

Hirugarren zutabean, garai haietan euskaldunok Londresera joaten zirenean hango kioskoetan Shakespeareren hizkuntzan argitaratzen ziren aldizkariak ugariak ez ezik, era eta gai askotarikoak zirela esan zuen Otamendik: «Denetarik aurki zenezakeen, nahi izanez gero auto zaharrei buruzko argitalpenak, Ferrari-ren gaineko edo suhiltzaileei espreski zuzendutako aldizkariak ere bai».

Orduko eta egungo egoera konparatu ondoren, Egunkariako zuzendariak konstatazio bat egin zuen: «Bai kopuruan zein espezializazioan, gaztelerazko aldizkarien eskaintza ingelesezkoen eskaintzaren mailara hurbildu bada ere, euskarazko aldizkarien kasuan ez da halako bilakaerarik gertatu, kioskora joan eta ikusi besterik ez dago, herri aldizkariak kenduta, Argia, Jakin eta Elhuyar eta Entzun aldizkariekin jarraitzen baitugu, eta egunerokoa, noski».

Gogoeta horri airean utzi eta berehala bigarren bat luzatu zuen, Hau ere kioskotik irten gabe. Honen ildotik, Otamendi Euskal Herriko kioskoetan eskaini beharko liratekeen euskarazko argitalpenen eskaintza adostu eta finkatzearen alde agertu zen. Kiosko txikia daukagu, jende eta irakurle gutxi daukagu eta gainera ari gara eskaintzen produktu mota bat hizkuntza normalizatua duten gizarte batean oso minoritarioa dena». Euskarazko kioskoaren «gutxieneko eskaintza» finkatzearen alde agertu ondoren, Otamendik merkatua eta kontsumoa ere kontuan hartzeko aldagaiak direla adierazi zuen.

## Señor ministro, yo creo a Otamendi

(...)¿En qué queda, por ejemplo, el derecho a no declarar contra sí mismo, cuando se mantiene a una persona encerrada durante cinco días en dependencias policiales, antes de llevarla ante el juez, y se le somete a continuos interrogatorios ("hábiles interrogatorios" se llamaban antes) con el objeto precisamente de que declare? ¿En qué la protección frente a la tortura y los tratos inhumanos o degradantes, cuando la persona detenida queda sometida al poder absoluto de sus captores, sin que haya forma de controlar el uso que éstos hacen de su poder ni medios para comprobar la veracidad de las frecuentes y gravísimas denuncias por torturas y tratos inhumanos o degradantes?

En nada, o muy poco, como ha podido constatar, entre otros, el director de Egunkaria, Martxelo Otamendi.

